


Euskal AEko industri jarduera %1,3 gehitu zen 2018ko uztailan

%2,6ko gehikuntza eduki du industri produkzioaren indizeak 2018ko lehen zazpi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2018ko uztailan %1,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2017ko hil beraren aldean. 2018ko lehen zazpi hiletan %2,6ko hazkundea eduki du, 2017ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2018ko uztailan %2,4 jaitsi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko uztailako indizearen bilakaerak, 2017ko uztailakoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Ekipoko ondasunak* %3,2 hazi dira eta *Bitarteko ondasunak* %2,2, baina *Energia* %8,4 jaitsi da. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %4,7 gehitu dira. Horien barnean, *Kontsumoko ondasun ez-iraunkorrak* dira igoyeraren eragileak, %7,8 gehitu baitira eta *Iraunkorrak*, aldiz, %2,3 jaitsi.

2018ko uztailako hil arteko aldakuntza, 2018ko ekainaren aldean, bakarrik da positiboa *Kontsumo-ondasunetan* oro har, %0,1eko igoerarekin, zeren *Kontsumoko ondasun iraunkorrak* %3,8 hazi baitira eta *Ez-iraunkorrak* %1,1 jaitsi. *Tarteko ondasunak* %0,9 beheratu dira, *Ekipoko ondasunak* %3,5 jaitsi dira eta *Energia* %4,5 gutxitu da.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak izan dituztenak urte artean hauek izan dira: *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak*, %8,3; *Garraio-materiala*, %6,4; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, %4,5.

Alderantzizko norabidean, %11,0ko jaitsiera gertatu da *Energia elektriko, gas eta lurrunaren* sektorean eta %0,4koa *Kautxu eta plastikoarenean*.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkundetasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-11,0
09 - Kautxua eta plastikoak	-0,4
13 - Makineria eta tresneria	0,7
14 - Garraio-materiala	6,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	8,3
12 - Material eta tresneria elektrikoa	0,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	4,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen uztailako urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban, %7,0ko igoerarekin, Gipuzkoan ez da aldaketarik izan (%0,0) eta Bizkaian %0,5 jaitsi da.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Uztaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Uzt2018 / Uzt2017	A(Uzt2018) / A(Uzt2017)(*)	Uzt2018 / Eka2018	Eka2018 / Mai2018
Indize orokorra				
Euskal AE	1,3	2,6	-2,4	1,0
Araba/Álava	7,0	3,5	-0,7	2,3
Bizkaia	-0,5	-1,6	-0,3	0,2
Gipuzkoa	0,0	6,5	-5,4	0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	4,7	0,0	0,1	2,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,3	-4,3	3,8	-0,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,8	1,7	-1,1	3,3
Ekipo-ondasunak	3,2	5,6	-3,5	-0,6
Bitarteko ondasunak	2,2	1,8	-0,9	1,3
Energia	-8,4	0,6	-4,5	1,7

(*) 2018ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62